



KONPARTSAK

Gaurko ibilbidea

Irteera ordua: 9:00etan. **Lekua:** Autobus geltokian. **Kaleak:** Tuter eta Lizarra kaleak, Vinculo plaza, Sarasate pasealekua, Comedias eta Pozoblanco kaleak eta Udal plaza. Udalbatzarekin Katedralera joanen da, eta itzuli Navarrería eta Kale Nagusitik San Lorentzo elizarraino. Atsedena: kale Nagusia. Bukaera: Autobusetan.

EGITARAUA

GAUR

06:45: Goiz eresiak. Udaletxe plaza eta Zezen-plaza.
07:00: Zaldi-aziendaren feria. Magdalenako hondartza. 15:00ak arte.
08:00: Lehenengo entzierrero.
09:00: Erraldiak eta buruhandiak. Irteera, autobus geltokitik.
10:00: San Ferminen prozesioa. Meza Nagusia, San Fermin kaperan.
11:00: Txikien hiri. Rodezno kondearen plazan. Emanaldi, ikuskizun eta olgetak, 14:00ak arte.
12:00: Musika banden irteera. Labrit pilotalekuan eta Gazteluko plazan.
17:30: Plazako zaldunen, mandakoen eta musika bandaren desfilea, Udaletxe plazatik zezen-plazaraino.
18:00: Txikien hiri. Rodezno kondearen plazan. Emanaldiak, ikuskizunak eta olgetak.
18:30: Lehen zezenketa.
20:00: Dantzaldia. Gurutzeko plaza. Yatagan orkestra. 22:00ak arte.
20:00: Gazte dantzaldia Antoniutti parkean. Rally orkestra. 22:30ak arte eta 00:00etatik goizaldeko 01:30era arte.
20:30: Herri musika. Basotxo. emanaldia: Celemin Añoranza (Gaztela eta Leongo etxea).
21:00: Bertako musika Gazteluko plazan. Dantzaldia, txistulari eta gaiteroekin.
22:00: Zezen-suzkoa Done Jakue plazan.
23:00: Su artifizialak Ziadadela parkean. Zaragozana piroteknia (Zaragoza).
23:30: Dantzaldia Gurutzeko plazan. Yagatan orkestra. Goizeko 01:30era arte.
00:00: Musika banden irteera Udaletxe plazatik.
00:00: Dantzaldia Gazteluko plazan: Oropendola orkestra. Horren ostean, Alain y Son La Clave.
00:00: Euskal musika Media Luna parkean: Oskorri.
00:30: Kontzertua, Sarasate pasealekuan: Fundacion Tori Manero.
01:00: Musika Foruen plazan: Los Fabulosos Cadillacs eta Arcanda.

kalean gora, kalean behera

54 zauritu, toxikazio eta ebakiekin

Gurutze Gorriak 54 lagun artatu zituen txupinazoaren ondoren, Udal plazan eta inguruetan. Gurutze Gorriak adierazi zuenez, jendeak beira ebakiak, erorketengatik kolpeak eta zauriak zituen. Baita toxikazioak, gehiegi edateagatik.

Presoen aldeko topa Zumalakarregin

San Frantzisko plazan egiten den presoen aldeko topa Zumalakarregi portalaren ondoan ospatu zuten atzo. Bertan duela 10 urte Mikel Castillo erail zuen Poliziak. Hori dela eta, bereziki hura gogoratu zuten topan egon ziren 200 lagunek.



JOXE LACALLE

Presoen aldeko topa.

Sanferminak Nafarroatik kanpo

Argentina, Katalunia edo Txileko Nafarroako etxeek, besteak beste, ospatu zuten San Fermin jaien hasiera. Esate baterako, meza emanen dute Argentinako Rosarioko katedrallean santu beltzaranaren omenez uztailaren 15ean.

Oinez-en plisti-plasta festan blai

Euriak festa hasiera moteldu zuen Oinez Txokoan, baina eguna pasa ahala giroa berotu zen

Irene Arrizurieta | IRUÑEA

Nafarroa Oinez-ek Iruñeko Taconera Parkeko Vistabella parkean jarritako Oinez txokoan, protagonista euria izan zen, atzo goizean. Euri jasa etengabearekin, eta eguraldi tristearekin hasi zuten jaiak. Zeruak mutur beltza ageri bazuen ere, Oinez txokoko arduradunak ez ziren kikildu, eta gogoz ekin zioten lanari San Fermin bezperan. «Hasiera nahiko motela izan da, euriak guztiak harrapatu gaituelako, baina euskaltzaleok hemen gaude, eta ongi pasatzeko prest», zioen Pello Mariñelarena Nafarroako Ikastolen Federazioko zuzendariak.

Dena dela, eguraldiak arratsaldean utzi zion etengabeko negarrari eta atertu zuen. Aterizkiak jende gehiago hurbildu zuen Oinez-eko jaigunera. Orduan hasi zen benetako ardo gorri nafarraren eta Lodosako piperraren dantza. Ogitartekoak eta edaria usu, handik eta hemendik. Artean Mariñelarena lanean jo eta su.

Hala ere, ez ziren Lodosarekin batera 2001ko Nafarroa Oinez antolatuko duen Sartaguda herriaz ahaztu, eta bertatik ekarritako alaitasunak jantzi zuen Vistabella arratsaldean.

Oinez denda San Anton kalean eta Niza tabernaren parean

Lodosako piperra eta Sartagudako puxika Nafarroa Oinez-eko logoak batera ibiliko dira festan. Biak soinean eraman nahi dituenak San Anton kalean Oinez-ek duen dendara, eta Niza tabernaren pareko postura hurbildu beharko du. Otordu finak ere presta daitezke Oinez-en eskaintzarekin: zainzuriak, piperrak eta puxikak ere saltzen dituzte bertan eta. Oinez txokoa 12:00etatik goizaldeko 06:00ak arte egonen da zabalik hurrengo zortzi egunotan.



JOXE LACALLE

Nafarroa Oinez-eko gunean langileak barraren alde batean, eta parrandazaleak bestean egon ziren.

PELLO MARIÑELARENA NAFARROAKO IKASTOLEN FEDERAZIOAKO ZUZENDARIA

«Elkartasuna eskatzen diogu San Fermini»

Irene Arrizurieta | IRUÑEA

Pello Mariñelarena Nafarroako Ikastolen Federazioko zuzendaria, Taconera parkeko Vistabella parajearen harrapatu genuen Nafarroa Oinez-eko txokoan, lan eta lan.

■ Zer eskatzen diozu San Fermin santu beltzaranari? San Fermini eskatuko diogu aniztasuna eta elkartasuna. Hori herritarrengan urtero sumatzen dugun zerbait da. San Fermin sailduari baino gehiago, Udaletxearen egiten dizkiongu eskaerak. Euskara, gure kultura, eta aniztasuna errespetatzea nahi genduke.

■ Urtero huts egin gabe zaudete sanferminetan? Orain 30 urte hasi ginen Santa Ana Plazan, Jarauta kalearen parean eta festaren bihotze-

an. Handik Yanguas eta Mirandara joan ginen. Duela bi urte Oinez Jaso ikastolak antolatu zuenean, berriro Santa Ana itzuli ginen. Hurrengo urtean han zehaztu nahi genuen Oinez gunea, baina Iruñeko Udalak ezetz esan zigun, eta Basotxoan bukatu genuen. Arrakasta handia izan zen, eta aurtengo ere toki bera eskatu genuen. Batzuei ez zitzaion gustatu lortu genuen giroa eta sona, eta erbestera bidali dute Oinez txokoa. Festatik nahiko urrutiko bidali arren, pentsatzen dugu lekua baino garrantzitsuagoa dela mezua, sentsazioak eta urtero euskararen topagunea izatea. **■ Basotxotik Vistabellara. Heldu den urtean nora bidaliko zaituzte Udalak?** Horrela jarraitzen badugu, eta

lerro zuzen bat eginez, Arrotxapea auzoan Gaseko ikulietan bukatuko dugu, zezenekin. Horrek ez gaitu kezkatzen. Han ere gustura egonen gara eta.

■ Zer esanen zenioke sanferminzaleari Oinez Txokora hurbiltzeko?

Hemen euskal giro ona dugu eta ogitarteko bikainak. Aurtengo Lodosako piper bereziak ere ekarri ditugu. Gurekin festan ongi pasatzera etor daitezela gonbidatzen ditugu.

■ Lodosako piperrak dituzue bisitarientzat. Sartagudako zer salduko duzue?

Sartagudako eta Erriberako alaitasuna ekarri dugu. Aurtengo Nafarroa Oinez-en ikurra piperra eta puxika dira. Baina puxikak oinez dendan bakarrik salduko dira.